

Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5549

EBAZPENA, 2008ko irailaren 24koa, Uniquial Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco agentziaren zuzendariarena; ebazpenaren bitartez, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorrean adierazitako txosten espezifiko emateko sortu den Batzorde espezifiko eta diziplina anitzekoaren kideak izendatzen dira.

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorraren lehen idatz-zatiari jarraiki, lege hori indarrean hasten den unean Euskal Herriko Unibertsitatean lagun edo doktore lagun gisa kontratatuta dauden irakasleei, baldin eta gutxienez bost urteko denboraldian unibertsitate horretan irakaskuntza- eta ikerketa-lanak egin dituztela egiaztatzen badute, lankide iraunkor edo agregatu gisa kontratatua egingo zaie, bakoitzaren doktore-kondizioaren arabera, Uniquial Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentziak txosten espezifiko eman ondoren.

Lege-aurreikuspen honen garapenean, egiaztatze-irizpideak onartzen dituen uztailaren 29ko 149/2008 Dekretuaren VIII. eta IX. eranskinetako 3. idatz-zatian ezartzen denez, aldeko txosten espezifiko helburu horretarako sortuko den Batzorde espezifiko eta diziplina anitzeko baten bitartez lortu ahal izango da. Era berean, 149/2008 Dekretuko eranskin horietan ezarrita dagoenez, Batzorde horren kideak Uniquial agentziako zuzendariak izendatuko ditu, Adituen Batzordearen proposamenari jarraituz, eta Uniquial agentziako Administrazio Kontseiluak berretsi ondoren.

Halaber, egiaztatze-prozesuak irauten duen bitartean indarrean egongo diren publikotasunaren eta gardentasunaren printzipioak betetzeko, 149/2008 Dekretuaren VIII. eta IX. eranskin horiek exijitzen dutenez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Uniquial agentziaren web orrian argitaratu beharko da Batzorde horren osaera.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan eskumenei jarraiki, eta aurreko aurreikuspenak betetzeko honako hau

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

5549

RESOLUCIÓN de 24 de septiembre de 2008, de la Directora de Uniquial Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, por la que se nombran los integrantes de la Comisión específica y multidisciplinar que se constituye para la emisión del informe específico al que se refiere la Disposición Transitoria Segunda de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco.

De acuerdo con lo dispuesto en el apartado primero de la Disposición Transitoria Segunda de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, el profesorado que, a la fecha de su entrada en vigor, se encuentre contratado como asociado o asociado doctor en la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea y acredite haber realizado, durante al menos cinco años, tareas docentes o investigadoras en dicha universidad será contratado como colaborador permanente o agregado, dependiendo de su condición de doctor, previo informe específico de Uniquial Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco.

En desarrollo de esta previsión legal, el apartado 3.º de los anexos VIII y IX del Decreto 149/2008, de 29 de julio, por el que se aprueban los criterios de la acreditación, establece que el informe específico favorable podrá obtenerse de una Comisión específica y multidisciplinar que se constituirá a tal fin. Los repetidos anexos del Decreto 149/2008 continúan diciendo que los miembros de dicha Comisión serán nombrados por el Director o la Directora de Uniquial, a propuesta del Comité de Expertos y con la ratificación del Consejo de Administración de Uniquial.

Asimismo, para dar cumplimiento a los principios de publicidad y transparencia que han de regir a lo largo de todo el proceso de acreditación, los indicados anexos VIII y IX del Decreto 149/2008 exigen que la composición de la Comisión sea publicada en el Boletín Oficial del País Vasco y en la página web de Uniquial.

Por ello, en virtud de las competencias que tengo atribuidas y en cumplimiento de las anteriores previsiones,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Batzorde espezifiko eta diziplina anitzekoaren kideak ondoren adierazten den bezala izendatzea:

Epaimahaiburua: Juan Andres Legarreta.

Kideak: Joaquin Gorrotxategi, Fernando Plazaola, Jose Luis de la Cuesta.

Idazkaria: Aintzane Asumendi.

Bigarrena.– Uniqua Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziako Administrazio Kontseiluak hurrengo bilkuran berresten duen datatik aurrera izango du eragina ebazpen honek.

Hirugarrena.– Jende guztia jakinaren gainean egon dadin, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Uniqua Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren web orrian argitaratu dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 24a.

Uniqua Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren zuzendaria,
ANA ISABEL FERNÁNDEZ SAINZ.

RESUELVO:

Primero.– Nombrar a los miembros de la Comisión específica y multidisciplinar que a continuación se detallan:

Presidente: Juan Andres Legarreta.

Vocales: Joaquin Gorrotxategi, Fernando Plazaola, Jose Luis de la Cuesta.

Secretaria: Aintzane Asumendi.

Segundo.– La presente Resolución surtirá efectos desde el momento en que sea ratificada por el Consejo de Administración de Uniqua Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia – Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco en su próxima reunión.

Tercero.– Ordenar, para general conocimiento, la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en la página web de Uniqua Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia – Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de septiembre de 2008.

La Directora de Uniqua–Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco,
ANA ISABEL FERNÁNDEZ SAINZ.